

UNITATE DIDAKTIKOA

NOR BIZI DA GURE ESKUELDEAN?

GOAZEN URDAIBAIKO
ERREALITATE ANITZENGANA
HURBILTZERA!

AURKIBIDEA

1

SARRERA

2

**EGIN "ZURE" UNITATE
DIDAKTIKO HAU!**

3

**NOLA BIZI DIRA GURE
ESKUALDEKO ETORKINAK?**
erronkak eta erresistentziak

12

**NOLA BIZI DIRA LANDA EREMUAN
BIZI DIREN HERRITARRAK?**
erronkak eta erresistentziak

17

**NOLA BIZI DIRA ZAINZA ETA
GARBIKETA LANETAN ARITZEN
DIREN EMAKUMEAK?**
erronkak eta erresistentziak

SARRERA

GEREIZPETATIK 11 IZPI PROIEKTUA

"Gereizpetatik 11 izpi: ahots isilduak bizitzaren narratibara gehituz" proiektuak hegemoniatik aparte dauden ahotsetan arreta jartzea du helburu, gereizpetan dauden herritarren errealitatea ezagutzeko, biltzeko, aztertzeko eta zabaltzeko.

Proiektua Gernika Gogoratuzek eta Gernikatik Mundurak burututako "Gatazka Egoeran dauden Lurraldeak" proiektuaren ondorioetatik sortu da. Tolima (Kolonbia), Cabo Delgado (Mozaubike) eta Urdaibaiko (Euskadi) bizi erronka eta alternatibei buruzko ikerketa egin da, gaitasun kolektiboak indartzeko eta eredu hegemoniko neoliberal eta patriarkalei aurre egiteko. Prozesu parte-hartzaile honetan pertsona eta kolektibo anitzek parte hartu duten arren, izandako gabezien artean, normalean entzuten ez diren ahotsengana hurbildu eta horiek ere entzun behar direla ondorioztatu zen. Narratiba horiek sendotzeko gereizpetan daudenen ahotsak entzutea ezinbestekoa dela uste da.

PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIA

Lurraldean dauden bizimodu anitzengana hurbiltzea, entzutea, ezagutzea, elkarrekin hausnartzea eta, batez ere, gizarte kritikoago eta inklusiboago bat sortzea da.



Gure lurraldeak perspektiba heterosexual, heteronormatibo, patriarkal, arrazista eta klasista batetik eraikita daude. Hori dela eta, prozesu parte hartzaile bat sortu izan da, non hegemonikotasun horretatik kanpo geratzen diren pertsonak parte hartu ahal izan duten. Horrela lurraldeari buruz eta bizi eredu duinei buruzko narratiba bat sortzea posible izan da.

Laburbilduz, proiektuaren jomuga nagusiak Urdaibain eta Toliman entzuten ez diren ahotsak entzutea eta horien errealitatea erdigunean jartzea izan dira. Hori horrela, bestetik, gaurko gazteak etorkizuneko protagonistak direnez, azterlan honetatik lortu diren emaitzak hezkuntza zentroetako eragileekin partekatzea gustatuko litzaiguke; komunitate hezitzaile batsortzeko orduan ikastetxeen eta gizarte zibileko taldeen arteko lankidetzak oso emankorra eta aberatsa dela sinesten baitugu.

EGIN "ZURE" UNITATE DIDAKTIKO HAU!

Unitate didaktiko hau marko horretan kokatzen da. Hori horrela, hurrengo orrietan "Gereizpetatik 11 izpi" proiektuko prozesu parte hartzaileetan parte hartu duten kolektibo ezberdinen errealitateak jorratuko dira, 3 azpi unitatetan:



Landa eremua



Etorkinak



Emakume anitzak



Hala ere, hurrengo orrietan partekatzen dugun proposamena ez da proposamen finko bat. Aldiz, zuen nahi eta behar izanetara egokitu dezakezue:

Proposatzen ditugun 1, 2 edo 3 gaiak jorratu ditzakezue, eta jarduerak ere aldagarriak dira. Esaterako, landa eremua lantzeko proposatzen dugun jarduera, beste gaiak jorratzeko ere erabil daiteke, eta alderantziz.

Hau da, zuei interesgarrien iruditzen zaizuen gaia zein jarduerak aukeratu ditzakezue.

UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURU NAGUSIA...

Ikasle zein irakasleak Busturialdea Urdaibaien isilpean ematen diren errealitateetara hurbiltzea eta horien inguruan hausnartzea da:

Zer egin dezakegu gure egunerokotasunean gure eskualdean bizi diren kolektibo horien diskriminizatuen bizi baldintzak hobetzeko?

Beraz, helburua hori izanik, senti zaitez aske unitate didaktiko hau aldatzeko, moldatzeko, informazioa gehitzeko... Egin "zure" unitate didaktiko hau!!

NOLA BIZI DIRA GURE ESKUALDEKO ETORKINAK?

ERRONKAK ETA ERRESISTENTZIA



GURE ESKUALDEETAKO GAUR EGUNGO ETORKINEN EGOERA

1. Etorkinek haien eguneroko bizitza oztopatzen duten eskubide urraketa eta muga administratibo ugari bizi dituzte.
2. Atzerritarren Legeak etorkinak klanestinitatera bultzatzen dituzte lehenengo hiru urteetan.
3. Kanporatuak izateko arrisku etengabea daude.
4. Ez dute lan baimenik, ez eta ikasketak burutzeko aukerarik ere.
5. Arazo larriak dituzte etxebizitza duin bat lortzeko (alokairu garestiak, diskriminazioa, arrazakeria...)
6. Sarritan lan abusua jasaten dute.
7. Guzti hori zaildu egiten da hizkuntza bai gaztelera zein euskara ulertzerik ez dutenean.

Gauzak horrela etorkinak gizartetik baztertuta gelditzen dira, eraso arrazistak bizi dituzte eta ez dute komunitatetik ia laguntzarik jasotzen, horrek osasun mentalean dakartzan ondorio larriekin.

HELBURUAK:

1. Gure eskualdean bizi diren etorkinen errealitatearen berri ematea.
2. Errealitate horren inguruko hausnarketa egitea:

Zergatik dituzte horrenbeste oztopo etorkinek?

Zer ondorio dituzte oztopo horiek?

Zer egin dezakegu etorkinen bizi baldintzak hobetzeko?

1.SAIOA PRIBILEGIATUAK AL GARA?

Gure unitate didaktikoari hasiera emateko, lehenengo saio orokor bat proposatzen dugu, ikasleak gure eskualdeetako errealitate anitzetan lurreratu dezaten eta haien pribilegio egoera edo, aldiz, haien desparekotasun egoera identifika dezaten.

"Gereizpetatik 11 izpi" proiektuaren nondik norakoak ulertzeko, ezinbestekoa da lehenik eta behin, ikasleek gure errealitatean ematen diren bidegabekeriak berri izatea, hortik sortzen baita proiektu honen behar izana.

Horretarako lehen saio honi hasiera emateko, hurrengo jarduera proposatzen dugu:

1. JARDUERA. "PRIBILEGIOEN LEHIA"

Egilea: Ideasur

Ikasle bakoitzari kartulina bat luzatuko diegu identitate ezberdin batekin. Adibidez:

GIZONA
IJITOA
50 URTE
LANGABEZIAN
5 SEME-ALABA

GIZONA
SIRIAN JAIOA
35 URTE
ARKITEKTOA
ERREFUXIATUA PAPEREN
ZAIN

GIZONA
24 URTE
FUTBOLARI PROFESIONALA

TXINAKOA
18 URTE
OSABAREN DENDAN LAN
EGITEN DUT
EZ DAKIT EUSKARA EZ
GAZTELANIA

EMAKUMEA
LESBIANA
MARROKON JAIOA
ERREFUXIATUA NAIZ
EZ DAKIT EUSKARAZ
EZ GAZTELERAZ

GIZONA
INGENIERUA
46 URTE
2 SEME-ALABA
BERMEOKOA

EMAKUMEA
ERRUMANIARRA
34 URTE
ENFERMERIA IKASI NUEN
ERRUMANIAN
EZ DAKIT EUSKARAZ

EMAKUMEA
NIGERIAKO
PROSTITUZIO BIKTIMA
22 URTE
SEME 1
PATERAN IRITSI NINTZEN EH
RA

EMAKUMEA
BILBOKOA
ETXEKO ANDREA
50 URTE
GENERO INDARKERI BIKTIMA
2 ALABA

EMAKUMEA
GERNIKAKOA
36 URTE
KUTXABANKEN EGITEN DUT
LAN

GIZONA
160 KG
ADEN GRADUATUA
EZ DUT LANIK AURKITZEN

Ikasleak lerro horizontal baten kokatuko dira.

Ondoren, irakasleak, galdera batzuk botako ditu:



Zure identitate berri honekin...

Pisu bat alokatzeko aukera duzu?

Lehendakari izatera iritsi ahalko zinake?

Diskoteka batera joan zaitezke inolako diskriminaziorik jaso gabe?

Bankuan prestamo bat eman ahal dizu?

Zure bikotea muxukatu dezakezu kalean?

Medikuarenera zoazenean, zure ama hizkuntzan hitz egin dezakezu?

Zure betiko lagunekin atera zaitezke?

Gauetz etxera bakarrik lasai joan zaitezke?

Ikasleek, haien identitate berriaren arabera erantzun beharko dute. Erantzuna baiezkoa denean, pausu bat aurrera egingo dute. Aldiz, erantzuna ezezkoa bada, lekuan geldi geratu beharko dira.

Jarduera bukatzerakoan, ikasle batzuk, beste batzuk baino aurreratuago egongo dira.



Ariketa honen helburua, gure gizartean ematen diren desparekotasun eta pribilegioak ikustaraztea da.

2. JARDUERA. HAUSNARKETA

Ondoren, borobil batean eserita, jardueran gertatutakoaren inguruko hausnarketa bat egingo dute ikasleek.

Zer gertatu da?

Zergatik batzuek aurrera egin dute eta beste batzuek ez?

Gustatu zaizue zuen identitate berria? Zergatik?

Zer ondorio atera ahal dugu guzti honekin?

2.SAIOA ZEIN ERAGIN DU ATZERRITARTASUN LEGEAK ETORKINENGAN?

Gure eskualdeetako etorkinen errealitatea ulertzeko lehen pausua Atzerritartasun Legea ezagutzea da. Izan ere lege honek oztopo ugari ezartzen ditu gure etorkinengan, horien egunerokotasuna zailduz. Ordea, Atzerritartasun legearen inguruan sakondu aurretik, beroketarako galdera batzuk egingo dizkiegu gure ikasleei:

Migratzea eskubide bat da?
Etorkintzako Lege bereziak al daude?
Legeak berdinak dira European jaiotakoentzako eta etorkinentzako?



1. JARDUERA

Galdera horien ondoren "Migratzea eskubide bat da" pptaren laguntzaz, atzerritartasun legearen inguruko aurkezpen bat egingo dugu.



**MIGRATZEA
GIZA ESKUBIDE
BAT DA**

Antolatzaillea: Gernikatik Mundura
Kolaboratzailea: SOS Arrazakeria Bizkaia
Babesleak: Bizkaiko Foru Aldundia eta Gernika-Lumoko Udala

**Migratzea GIZA
ESKUBIDE bat da**

**Migrar es un DERECHO
HUMANO**

Hala ere...
Sin embargo...



**Gure ESKUBIDE eta
BETEBEHARRAK
LEGE NAZIOALETAN
DEFINITZEN DIRA**

**Nuestros DERECHOS
y OBLIGACIONES
están definidas en las
LEYES NACIONALES**

Lege berdinak al dira
Europar jaiotakoentzako eta
etorkinentzako?

Se aplica la misma ley para
las personas nacidas en
Europa y para las personas
migradas?



**Ez... ATZERRITARTASUN
LEGEAREN arabekoak dira
persona migratuen
eskubideak**

**No... Los derechos de las
personas migradas dependen
de la LEY DE EXTRANJERÍA**



**ATZERRITARTASUN
LEGEAK EZARTZEN
DUENA**

**LO QUE DICTA LA
LEY DE
EXTRANJERÍA**

—

Mínimo tres años en la clandestinidad obligatoria: Sin permiso para trabajar ni acceso a estudios superiores.

—

Si se trabaja en B, sin acceso a paro ni cotización ni vacaciones. A menudo trabajar sin contrato significa explotación laboral, a causa de los chantajes por parte de las jefaturas.

—

Para poder acceder a un permiso de trabajo, hay que haber estado empadronadx en la CAV (si vives en la CAV tienes derecho a empadronarte gratuitamente). Pero la gente que alquila los pisos no quieren empadronar a gente extranjera o cobran más por el alquiler+padrón (hasta 150€ más al mes).

—

Constante riesgo a la deportación. Al no tener papeles (permiso de residencia), si la policía te para es probable que pongan una orden de deportación al país de origen.

2. jarduera burutzeko diapositiba honetan geldituko gara.

2. JARDUERA

NOLA EGINGO DIEGU AURRE HURRENGO EGOEREI?

Jarduera hau egiteko, ikasleak 4 taldetan banatuko ditugu. (Taldeak egiteko gustoko dugun edozein teknika erabil dezakegu)

Talde bakoitzari azken diapositiban agertzen den egoera bat luzatuko diegu:

"Mínimo tres años en la clandestinidad obligatoria. Sin permiso para trabajar ni acceso a estudios superiores."

Si se trabaja en B sin acceso a paro ni cotización ni vacaciones. A menudo trabajar sin contrato significa explotación laboral, a causa de los chantajes por parte de las jefaturas.

Para poder acceder a un permiso de trabajo, hay que haber estado empadronad@ en la CAV (si vives en la CAV tienes derecho a empadronarte gratuitamente). Pero la gente que alquila los pisos no quiere empadronar a gente extranjera o cobran más por el alquiler + padrón (hasta 150euros más al mes).

Constante riesgo a la deportación. Al no tener papeles (permiso de residencia), si la policía te para es probable que pongan una orden de deportación al país de origen.

Jarraian taldetan hurrengo bi galderen inguruan hausnartzeko eskatuko diegu:

Nola uste duzue eragiten duela egoera horrek etorkinengan?
Egoera horretan egongo bazinate, nola egingo zenieke aurre?



Bukatzeko, galdera horiei erantzun ondoren, bozeramaileak aman komunean jarriko du taldean hitz egindakoa.



Irakasleok egon zaitezte ikasleek partekatzen dutenaren adi. Baliteke haien parte-hartzean aurreiritzi edo estereotiporen bat agertzea. Batu partekatutakoa eta azken saioan berreskuratuko dugu horien inguruko lanketa txiki bate egiteko!

3.SAIOA ARRAZAKERIAREN ZUHAITZA

1.JARDUERA

Azken saioari hasiera emateko aurreko saioetan landutako gaiak gogoratuko dizkiegu ikasleei:

- Arrazakeria
- Desberdintasun sozialak eta pribilegioa
- Atzerritartasun legea eta horren eraginak

2.JARDUERA "Arrazakeriaren zuhaitza"


Jarduera honen helburu nagusia arrazakeria, desberdintasun sozialak eta pribilegioak testuinguru batean kokatzea da. Jarduera honen bitartez ikasleek aurreko saioetan jorratutako ideia eta kontzeptu ezberdinen arteko loturak egitea bultzatzen dugu.

Horretarako ondoko zuhaitza kokatzen dugu gelako horma batean, ikasleen ekarpenen bidez osotuko duguna.

NOLA ISLATZEN DEN ARRAZAKERIA GURE GIZARTEAN

NOLA ENBORTZEN/ EGITURATZEN DEN ARRAZAKERIA GURE GIZARTEAN

ARRAZAKERIAREN JATORRIA



ARRAZAKERIAREN ZUHAITZA BETETZEKO GALDERAK:



ARRAZAKERIAREN JATORRIA

- Noizbait galdetu al diogu gure buruari zergatik pertsona batzuek pribilegioak dituzten eta beste batzuk diskriminatuak diren?
- Zein uste duzue dela errealitate horren jatorria?
- Zergatik existitzen dira desparekotasun sozialak?
- Noiz hasi ziren?

EGITURAZKO ARRAZAKERIA

- Kolonialismoa iraganeko zerbait al da? Zergatik?
- Ba al dago loturarik gaurkotasunaren eta kolonialismoaren artean? Zein?
- Zer da arrazakeria?

ARRAZAKERIA NOLA ISLATZEN DEN GIZARTEAN

- Nola islatzen da arrazakeria gure egunerokotasunean?
- Etorkinenganako estereotipoak eta aurreiritziak ez al dira arrazakeria kontu bat?

3. JARDUERA. "Eta guk, ez ote ditugu etorkinenganako estereotipoak sustatzen?"

Estereotipoen inguruan hitz egiten ari garela, momentu hau aprobetxatuko dugu aurreko saioetan zehar ikasleek plazaratutako estereotipoen inguruan hitz egiteko!

Horretarako 2. saioan bildutako ikasleen estereotipo eta aurreiritziak bueltatuko dizkiegu eta horren inguruko hausnarketa bat egingo dugu:

Ezagutzen dituzue aurreiritzi/estereotipo horiek?

Zer deritzozue?

Arrazistak al dira?

Zer egin dezakegu horiek deuseztatzeko?

4. JARDUERA. Azken balorazioa.

Gure esku-hartzeari amaiera emateko ikasleei haien balorazioa egiteko eskatuko diegu:

- Zer iruditu zaizkizue saio hauek?
- Gustatu zaizkizue? Zergatik?
- Uste duzue zerbait ikasi duzuela egun hauetan?
- Nola sentitu zarete?

**NOLA BIZI DIRA LANDA
EREMUAN BIZI DIREN
HERRITARRAK?**

**ERRONKAK ETA
ERRESISTENTZIAK**




LANDA EREMUAREN GAUR EGUNGO EGOERA

1. Landa eremua despopulazio prozesuan darrai, bizigarritasuna zaurra da, lan aukerak oso murrizak dira eta bizilagunek hirietara mugitzeko joera dute.
2. Harira, etxebizitza sarbidea oso murrizta da eta landa eremuko ondarearen galera gero eta handiagoa da.
3. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduera tradizionalak gero eta murrizagoak dira, eta, kasu batzuetan, ingurumenarentzako kaltegarri diren jardunbideekin lotuta daude.
4. Belaunaldi arteko lekukotasuna zaildu egiten da, gazteek baserriak berrizteko oztopo ugari aurkitzen baitituzte (lizentziak, finantziazioa, etab.).
5. Elikadura ohituren aldaketak landa eremuan eragin handia izan du; urteetan zehar, lekuko elikagaien ekoizpenak eta kontsumoak beherantz egin du, merkatuak eta salmenta guneakahulduz eta murriztuz.
6. Komunitatearentzako elkargune ezak ere eragiten dio bizigarritasunaren urraketari; auzoan askatasunez elkartzeko guneak eta harremantzeko espazioak falta dira, oinarrizko zerbitzuez gain. Horregatik, garraioaren mendekotasun handia dago, batez ere garraio pribatuarekiko mendekotasuna.

HELBURUAK:

1. Azalduko errealitatearen berri ematea. Zer ari da gertatzen gure baserri eta herri txikietan?
2. Errealitate horren inguruko hausnarketa egitea: Zergatik ari da gertatzen? Zer ondorio izan ditzake? Zer egin dezakegu landa eremuan bizi diren pertsonen bizi baldintzak hobetzeko?

PHOTOVOICE



Photovoice teknikak ikasleen kontzientzia kritikoa lantzea du helburu.

o Zertan datza?

Lurralde, komunitate edo talde bateko parte diren pertsonen errealitate horiek erretratatzeko datza, argazki bidez, pertsona horiek haien inguruak aztertzeke dituzten gaitasunak aitortuz eta horien bidez beharrezkoak diren gizarte-eraldaketak ahalbidetuz eta ezagutaraziz.

o Zer lortu nahi da Photovoice teknikaren bitartez?

Horrela, komunitatearen eta haren taldeko kideei buruzko informazioa sortzen da. Teknika honen helburu nagusia norberaren eta komunitatearen indarguneak eta ahulguneak identifikatzea, erregistratzea eta horiei buruz gogoeta egitea lirateke, baita haien esperientzien balioa ezagutzea.

1.SAIOA

Jarduera hau egiteko Gernikako merkatu plazara joango gara astelehen goiz batean. Bertan ikasleek argazkiak atera eta elkarrizketa ezberdinak burutu beharko dituzte merkatuko saltzaile eta erosleei, egungo merkatuko eta landa eremuko errealitatea uler dezaten:


- o Zer gertatzen da merkatu plazan?
- o Nork saltzen ditu produktuak?
- o Nor joaten da merkatu plazara?
- o Zein da nekazarien egungo egoera?
- o Zergatik?



2.SAIOA

Bigarren saioan ikasleek aurreko saioan ateratako argazkiekin eta elkarrizketen bidez jasotako datuekin landa eremuan bizi diren herritarrek gaur egun dituzten oztopo eta erronken inguruko aurkezpen bat egingo dute.

Horretarako saio oso bat izango dute, taldetan haien aurkezpenak prestatzeko.



3.SAIOA



Azken saioan ikasleek aurkezpenak egingo dituzte eta ondoren hausnarketa bat egingo dugu taldean:

Zer ikasi dugu?

Ba al zenekiten landa eremuan gertatzen ari dena?

Arazo bat al da? Zergatik?

Zer egin dezakegu oztopo horiei aurre egiteko?

NOLA BIZI DIRA ZAINZA ETA GARBIKETA LANETAN DIHARDUTEN EMAKUMEAK GURE ESKUALDEAN?

ERRONKAK ETA ERRESISTENTZIAK




ZAINZA ETA GARBIKETA LANETAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN EGUNGO EGOERA

1. Lan egiten duten emakumeak sarritan etorkinak izaten dira
2. Ez langileek ez eta kontratatzaileek ez dituzte haien eskubideak ezagutzen.
3. Askotan lan kontratu bidegabeak, lan baldintza prekarioak eta lan abusuak bizi izaten dituzte:
 - ez dute lanbide arteko gutxieneko soldata jasotzen
 - kontratu gabe eta gizarte segurantzaren altxan eman gabe lan egiten dute
 - ez dute kotizatzen
 - ez dituzte ordu extrak kobratzen
4. Kontratatzaileek haien egoera administratibo irregularra eta haien beharrezko ekonomikoa erabiltzen dute haien lanaz baliatzeko, mehatxuak eta xantailak jasaten dituzte eta kasu batzuetan tratatu txar fisiko, psikologiko eta sexu-abusuak pairatzen dituzte.

HELBURUAK:

1. Azalduko errealitatearen berri ematea. Zer ari da gertatzen zaintza eta garbiketa lanetan aritzen diren emakumeekin?
2. Errealitate horren inguruko hausnarketa egitea: Zergatik ari da gertatzen? Zer ondorio izan ditzake? Zer egin dezakegu emakume horien bizi baldintzak hobetzeko?

ROLE PLAYING



1.SAIOA

oZein da Role Playingaren helburua?

Proiektuan zehar identifikatu eta landu diren gatazkak ezagutu, hausnartu, horiek antzeztu eta, ondoren, garrantzitsuena, horien transformazioa bideratu. Kasu honetan ezagutuko diren testigantzei inportantzia ematea izango da xede nagusia.

oNola burutuko da?

Role Playing jarduera honetan prekarietatean bizi diren emakumeen errealitatea antzeztuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin errealitate horren inguruko datuak bilatuko ditugu.



ALDIZKARIETAN
ARTIKULUETAN
INTERNETEN:
<https://ath-ele.com/es/>

Informazio hori izanda, ikasleak taldetan banatuko dira eta errealitate horien inguruko antzeztan bat prestatu behar dute.

2.SAIOA

Bigarren saio honetan, ikasleek haien antzeztan antzeztuko dituzte. Ondoren horien inguruko hausnarketa bat egingo dugu:

Zer ikasi dugu?

Ezer ba al dago gure esku errealitate horiek hobetzeko?

Zer egin genezake?

